

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Zaborren tasaren errolda, 2020ko bigarren hiruhilekoko

2020ko bigarren hiruhilekoko zaborren tasaren errolda jendaurrean dago, hamabost egun baliodunetz, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendaurreko 15 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren 2020ko bigarren hiruhilekoko ordainagiriak aldi honetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean: 2020ko uztailaren 1etik abuztuaren 30era (egun biak barne).

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko errekararekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; errekaru hori bateragarria da luzapen errekararekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2020ko maiatzaren 27a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES